

‘Zainduz’ programak berbaldi gehiago dakartza, hilaren 15etik aurrera

Menpekotasuna duten pertsonen eta horien zainzaileen bizimodua erraztea bilatzen du egitasmoak

E.U.

2012az geroztik egin bezala, *Zainduz* programak menpekotasuna duten pertsonen eta horien zainzaileen bizi kalitatea hobetzen dihardu. 2013-2014 ikasturteari, esaterako, udazkenean ekin zion Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, eta urtarrilerako ere eskaintza zabala dakarrela jakinarazi du. Hain zuzen, zortzi hitzaldi eta hiru eguneko tailer bat emango ditu mankomunitateak. Horrez gain, baina, otsailean ere beste hamabi saio antolatzeko asmoa daukate, Nerea Llantada mankomunitateko kidearen berbetan.

Urtarrileko saioei hilaren 15ean emango diete hasiera, tailer bategaz. Hiru astez, zainzaileentzako aholkuak eta informazioa emango dituzte. Hitzaldiei dagokienez, bestalde, mankomunitateak Osakidetzaren eta Er-tzantzaren laguntza izango du berbaldiak emateko.



Nerea Llantada eta Begoña Landa programari buruzko azalpenak ematen. ENDIKA URLEZAGA

Tailerrak eta berbaldiak ez dira *Zainduz* programak eskainiko dituen onura bakarrik. Izan ere, zainzaileentzako etxeko prestakuntza zerbitzua, eta norbanakoentzako zein taldeentzako laguntza psikologia eskaintzen ditu egitasmoak.

Etxeko etxeko prestakuntzari dagokionez, gainera, berritasunak izango dira aurten. 2012-2013 ikasturtean hiru klase bakarrik

eman zituzten, baina ikasturte berrian bost klase emango dituzte, gizarte langile baten eta fisioterapeuta baten laguntzagaz.

Programa arrakastatsua

Begoña Landa gizarte zerbitzuetako zinegotziak azaldu duenez, «hainbat dira zahartzaroagatik edo gaixotasunagatik menpekotasunen bat duten pertsonak». Normalean, gainera, familiako

kide batek zaintzen du menpekotasuna duen pertsona, eta, horrek, bere bizimoduan eragiten du. Hala, *Zainduz* programa pertsona horiei «arnasa emateko» modu bat da.

2012-2013 ikasturtean 373 lagunek parte hartu zuten programan, 27 saiotan banatuta. Hala, balorazio oso positiboa egin du mankomunitateak, eta aurten herritar gehiagorengana heltzea

↓ Egitaraua

URTARRILEKO SAIOAK

- **Hilaren 15ean, 22an eta 29an (Gernika-Lumon):** Zaintzaileentzako tailerra. Gai hauek landuko dituzte: norbere buruaren zaintza, nola erabili gure denbora, eta zaintzaileentzako mugak. 18:30etik aurrera.
- **Hilaren 19an (Kanalán):** Eli-kadura osasuntsuari buruzko hitzaldia, 12:00etan.
- **Hilaren 21ean (Busturian):** Autonomia pertsonalari buruzko hitzaldia, 18:00etan.
- **Hilaren 23an (Foruan):** Alzheimerri eta dementziari buruzko hitzaldia, 18:30ean.
- **Hilaren 24an (Mundakan):** Autonomia pertsonalari buruzko hitzaldia, 19:00etan.
- **Hilaren 28an (Ibarrangelun):** Alzheimerri eta dementziari buruzko hitzaldia, 18:00etan.
- **Hilaren 29an (Mendatan):** Lapurretei eta iruzurrei aurrea hartzeko hitzaldia, 18:00etan.
- **Hilaren 30ean (Arratzun):** Lapurretei eta iruzurrei aurrea hartzeko hitzaldia, 17:30ean.
- **Hilaren 31n (Gaitegiz Arteaga):** Alzheimerri eta dementziari buruzko hitzaldia, 18:00etan.

aurreikusten du. Azaldu duenez, parte hartu zuten herritarrek «oso gustura» geratu dira; eta zerbitzu baliagarria dela deritzote gehienek.

Euskal musikak eta soinu tresnek Lizeo Antzokia hartuko dute

Gaur izango da kontzertu didaktikoa, 20:00etan; Lizeo Antzokian joko du musikariak

E.U.

Juan Mari Beltranek euskal musikari eta soinu tresnei buruzko hitzaldi bat emango du gaur, Lizeo Antzokian. 20:00etan hasiko da musika ikuskizuna. Musika eskolako ikasleak doan sartu daitezke, baina gainontzekoek hiru euro ordaindu behar dituzte.

ZUZENKETA: Hilaren 8an argitaratutako Pasealekuaren parte hartze prozesuari buruzko albistean datu oker bat zegoen. Iparraldeko eraikina ez dago guztiz hutsik. Bertan dago Berri-zegunea.

Hilaren 15etik aurrera, lepo osasunerako ikastaroa emango dute

Aldez aurretik eman behar dute izena interesatuek; Estibaliz Malaxetxebarriak emango du ikastaroa

E.U.

Hilaren 15etik aurrera, Estibaliz Malaxetxebarriak lepo osasunerako ikastaro bat emango du, Astran. Izena eman nahi dutenek bi aukera izango dituzte. Batetik, estibaliz.malaxetxebarria@gmail.com e-postara idatziz eman daiteke izena. Bestetik, 630.868.137 telefono zenbakira deituz ere apuntatu daitezke interesatuak. Saio bakoitzeko bost euro ordaindu behar dira.

Lepo osasunerako ikastaroan bizkarreko minari zelan aurre egin ikasiko dute parte hartzaileek.

Irudia ›



DANTZALDI IBILTARIA ARGAZKIETAN

Gernika-Lumoko biztanleek Aiko taldearen *Dantzaldi Ibiltari*ko argazkiak ikusteko aukera izango dute egunotan. Kultur Etxeko langileek jakinarazi dutenez, bihar kendu behar zuten erakusketa, baina denbora gehiagoz izango da ikusgai, kultur etxeak ez baitu erakusketa berririk hartuko otsai-

lera arte. *Dantzaldi Ibiltaria* herriz herri dabilen euskal dantzen ikastaro bat da, eta Aiko taldeak sustatzen du. Gernika-Lumon ere izan zen taldea, eta, horrenbestez, bertoko zenbait argazki ere daude ikusgai. Erakusketako argazki guztiak Iñaki Andresek atera ditu. ENDIKA URLEZAGA